Las películas eran exclusivamente los domingos en sesiones de cuatro y siete de la tarde. Poco antes de que empezara la película el “glamour” invadía los soportales del bar Aramendi, glamour que consistía en varios puestos de chucherías, caramelos, cacahuetes. Uno de esos puestos los regentaba Gerita con la que había que regatear la cantidad de cacahuetes

Pero ¿quién iba al cine? Sobre todo la juventud. Chavalería (algunos de ellos entraban de tapadillo, debajo del abrigo de un hermano mayor o algún amigo) y luego novios, muchas parejas de novios. No está del todo claro a qué iban estas parejas, pero sus intenciones lascivas se enfriaban en cuanto Paternain les alumbraba con la linterna. Ya que hemos empezado, vamos a presentarles a la plantilla del cine. Como hemos dicho Paternain era el acomodador, Florentino el portero, Mario vendía las entradas y Vicente el proyectista. De todos modos, el pro-

**ZINEA IRITSI ZEN**

1924ko uztailaren 3an dugu Urretxuko zineari buruzko lehenengo berria. Izan ere, egun horretan aztertu zuen Udaleko Batzorde Iraunkorrek Domingo Cuesta Flañok zine bat irekitzeko aurkeztutako eskaera. Urte bereko abenduaren 8an bota zuten lehenengo pelikula. Pozik hartuko zuten gazteek zinea. Oliver Hardy eta Stan Laurel edota Charlotten pelikulekin barre ugari egingo zituzten. Beranduago Fred Astaire eta Ginger Rogers ikusiko zituzten pantaila handian dantzan eta pelikula erromantikoentzako tokia ere bazegoen. Baina gaur egungo zinearen antz handirik ez zuten, orduan ohikoa baitzen jendeak erretzea, jatea, txistuka eta kantuka aritzea. Urte oparoak bizi izan zituen Urretxuko zineak, 320 jarlekuak sarritan zeuden beteta eta eserleku on bat lortzeko sarrera-saltzailea “erosi” beharra zegoen. Baina gestio kaskarrarengatik ikusleak galtzen hasi zen eta azkenean atek itxi egin behar izan zituen.





# KKINZONA FM 98.0.

## GAZTE IRRATIA, HERRIARI ESKEINIA

KKINZONA irratia GazteleKU parean dagoen lokalean aurkitzen da. Gazte ezberdinek partehartzen dute asmo berri honetan, aurretik KKINZONA aldizkarian ibilitakoak, batzu. Ideia, asmoa, proiektua, haseran zerbait utopikoa zirudiena, aldizkari lanarekin bat sortu zen, gogoaz zegoen zeozer egiteko, komunikatzeko batez ere, eta irratia bide bat izan zitekeela pentsatu zuten.





**H**asierak, 2007 urtean eman zituen irratia alokatutako lokal batetan, eta autogestioaren bitartez aurrera ateratzen saiatu ziren. Ekintza ezberdinak antolatzen zituzten, bertso afarik, bazkide kanpaina bat... hau da, etengabean dirua ateratzen ibili ziren "lau katuk entzuteko" diote. Internetez emititzen hasi ziren, ta martxan jartze horretan, laguntza moduan, Arraio irratiko lagun bat izan zuten.

Hortik aurrera, denboraldi batez alokatutako lokal horretan lan egin ondoren, irratia FM bitartez entzuteko saiakeran hasi ziren. Urretxuko udaletxearekin harremanetan jardun eta gero, beste lokal bat lortu zuten iaz, ekaina inguruan.

Jende asko ibili da lanean, laguntzen, irratia txukun antolatzen, Gazte Asanbladakoak, lagunak... eta hori eskertzekoa dela diote. Partehartzea baloratzekoa da.

Hainbat astetan era probisionalean ibili eta gero, otsailaren 6an hasi dira FM bitartez emititzen, 98.0 frekuentzian. Denetarik emititzen saiatzen dira, musika programetatik, kirol zein filosofia programetara.

Gogo haundiz dabilta gauza desberdinak ateratzeko. Horien artean informatibo bat, Dj sesioak, edota Gaztelekuko kontzertu zein hitzaldiak, adibidez. Beste gauzen artean badute asmoa tailer bat antolatzeko irratia funtzionamenduaren inguruan. Irratian edozeinek partehartu dezakeenez, garrantzizkoa iruditzen zaie oinarri batzu izatea.

Herriko ikastetxeekin kontaktua hartzen hasi dira, haiekin ere ekimen ezberdinak bideratu ahal izateko.

Badira 2 urte proiektu, ilusio, helburu honekin hasi zela Urretxu-Zumarrago gazte talde hau eta haien balorapena hasieratik hona positiboa da. Egokiegia ez zen lokal batean hasi ziren, baina hasteko zerbait ere bazen. Lokalez aldatu dutenetik eta berria lagun ugariren

“**Abantaila handiagoak ditu lokal honek. Ilusioz gainezka gabiltza.**”



guztiok daukagu zer eman, zer eskeini, garen modukoak agertzen laguntzen digu. Guk nahi dugun bezalako aterako da. Partehartze heritarra bultzatzen dugu, baina konpromezua oinarritzat duen partehartzea.>

**Ana Isabel Iturbe**

Argazkiak:  
**Alex Areizaga**

laguntzaz egokitu dutenetik, ilusio handiz dabilta. Lokal handiagoa da, denen eskura dago, abantaila gehiago ditu... gainera herriko jendeari asko zabaldu denez partehartzea ugaritu egin da. Gazte proiektua da, baita heritarra ere, haien ustetan.

“**IRRATIA herriari zabaltzea nahi dugu, denentzat izatea nahi dugu, gazte, heldu, zein umeentzat. Herriaren irratia izatea**”

Irratia gestionatzeko asanblada bat antolatu dute. Ostegunetan, 21:30ak inguruan biltzeko ohitura dute Gaztelekuan. Asmo, partehartzeko gogoia duen edozeinek joateko aukera badu.

"KKINZONA irratia, irratia librea da, ez dago eragile baten edo ideologia jakin baten menpe. Bere hitzek diote, librea da. Irekia dago edozeini,

**KKINZONA  
F.M. 98.0.**

Es la radio surgida a través de la iniciativa de jóvenes de Urretxu y Zumarraga que participaron anteriormente en la creación de una revista, llamada también KKinZONA. ¿Por qué una radio? Con el objetivo de comunicar, de llegar al pueblo, de que la gente tome parte, porque es una buena manera de decir las cosas y llegar a la gente, de divertirse, también.

El local, que se encuentra enfrente del Gazteleku, ha sido acondicionado por ellos mismos y con ayuda de amigos, de gente de la Gazte Asanblada, etc.

Es una radio libre, abierta a todo tipo de gente, y donde pueda tomar parte todo el que quiera aportar algo. En dos palabras, una radio dirigida al pueblo.

# JON ESNAOLA

## PASIONISTA Y COLABORADOR DE ADECO-ONG

“*En este mundo de hoy  
hay personas que no tienen NADA*”

### **Cuéntanos algo sobre ti para que los lectores de KAIXO puedan conocerte.**

Bien, nací en Urretxu hace 42 años, bueno ya casi 43. Vivíamos en Altamira, pero al crecer la familia nos fuimos a la calle Labeaga, donde todavía vive la ama. Soy el pequeño de los hermanos.

La enseñanza primaria la hice en La Salle de Zumarraga, y a los 15 años, pensando ser hermano de La Salle, me fui a estudiar a San Sebastian e Irun, donde estuve tres años. Tengo muy buen recuerdo de esa época, pero vi que la enseñanza no era lo mío y volví a casa con 18.

### **¿Qué recuerdos tienes de tu infancia?**

Podría contar miles de ellos, pero destacaría tres:

1.- La muerte de mi hermano pequeño, repentinamente, a la edad de 5 años. Marcó profundamente mi infancia y ha hecho que vea la muer-

te de una forma distinta a como la ve la sociedad actual. Tiene que haber vida después de la muerte, de lo contrario muchas cosas de este mundo no tienen sentido.

2.- En la primera comunión me regalaron un Nuevo Testamento y fue todo un descubrimiento para mí, pues el saber que hay alguien bueno, Jesús, que nos acompaña en el camino de la vida fue algo especial.

3.- Mi afición a la música Rock, bueno la verdad es que es una afición compartida por toda mi familia. En cualquier ocasión, para mí, el mejor regalo es un disco de música Rock.

### **Ah, qué curioso, y ¿cual es tu grupo preferido?**

Hay muchísimos, pero como principio "The Beatles". Tengo una especie de fiebre, en el buen sentido de la

palabra por conocerlos, tener libros, coleccionar discos, investigar... De esta forma se van descubriendo otros tipos de música, Folk, Jazz, Blues, música tradicional vasca... Esto te ayuda a entender la música y otras clases de arte. Actualmente los jóvenes oyen música en el MP3 y no saben muchas veces quien canta lo que escuchan.

“*Hitzaren zentzu onean,  
halako sukar moduko bat dut  
Beatles taldea ezagutzeko,  
liburuak edukitzeko, diskak  
biltzeko, ikertzeko...*”

### **¿Hay un lugar en Urretxu especial para ti?**

Todos y ninguno. Por citar alguno, Iririo para contemplar mis raíces, la grandeza de la Naturaleza...




**NORTASUN AGRIA**
*Izen-abizenak:*
**Jon  
Esnaola Garate**
*Adina:*
**42 urte**
**Pasionista**
**¿Por qué decidiste ser Pasionista?**

Cuando volví a casa a los 18 años lo hice en medio de una crisis personal, de gente joven, pretendiendo encontrar el sentido de la vida. Era aproximadamente el año 1985 y trabajaba en el grupo de tiempo libre "Artizar" que había en la Parroquia Lurdesko Ama, entonces sentí curiosidad por conocer a los pasionistas, a esas personas que estaban dejando atrás familia, comodidades, etc. para dedicar la vida a los demás.

Tras un periodo de reflexión que no duró ni un día ni dos, me decidí a probar. Le di muchas vueltas a la cabeza, pensando si mi decisión sería la más acertada, acudí a encuentros de oración (Pascuas juveniles) y vi que Jesús me estaba pidiendo que saliera a buscarle.

Por otra parte tuve el apoyo de la familia y de la cuadrilla de amigos que tenía en ese momento, a los cuales siempre recuerdo, y ya que tenía los estudios parados, sin saber qué hacer, decidí probar.

**¿Y a partir de ahí?**

Me fui a Vitoria a estudiar filosofía y teología. Viví en comunidad, probé y me convenció, y hasta hoy. Para mí es toda una experiencia de vida. Los pasionistas hacemos memoria de que la Pasión de Jesús puede traer alegría y sentido común a este mundo, acompañando a los que sufren para devolverles la dignidad.

**¿Y te ordenaste sacerdote o eres laico?**

Yo opté por ser sacerdote, e hice los votos perpetuos en el año 1994 en Urretxu, en la parroquia de Nuestra Señora de Lourdes y más tarde, en el año 2001, fui ordenado sacerdote, en San Felicísimo de Bilbao.

**Y ahora, ¿cómo es tu vida?**

Actualmente vivo en Vitoria con 2 jóvenes, David de Urretxu y Daniel de Albacete que están estudiando Teología y Filosofía, con Txema que trabaja con ellos en el estudiantado y

con Teófilo, un navarro que ha estado más de 40 años en la selva americana.

Además trabajo en la ONG Adeco, en campañas de sensibilización y en el campo de la informática e Internet, manteniendo la página web y el blog, y con los jóvenes.

ADECO, que significa Amistad, DEsarrollo y COoperacion, surge de Misiones Pasionistas en el año 1991, para apoyar desde aquí a los que trabajan en distintas misiones, constituyéndose en ese momento como ONGD. A partir de ahí, se comienza a trabajar en Perú (sobre todo en Tarapoto y Yurimaguas, para luego extender los proyectos a otros países como son Cuba, El Salvador, Panamá, Colombia, Rep. Dominicana, Chile y Honduras.

ADECO tiene sedes en Bilbao, Irún, Urretxu y Gasteiz y forma parte de la FEDERACION ADECO en la que están Cantabria, Asturias, Navarra, Aragón y La Rioja.

También formamos parte activa de la Coordinadora de ONGD'S de Euskadi, en la que nos encontramos participando en el grupo de Género, así como en la organización REDES.

### **¿Y actualmente qué proyectos estáis desarrollando?**

En este momento están en marcha un total de 24 proyectos, cuatro de los cuales son de sensibilización aquí. Son iniciativas para transmitir y sensibilizar a los alumnos y alumnas de primaria y de la ESO, de la importancia del desarrollo, de la Justicia Social y de la Cooperación. Para llevar a cabo esto, contamos con cuenta-cuentos, unidades didácticas, proyecciones de power point, videos, etc.... Nos desplazamos a los centros escolares para acercar la realidad de los países en vías de desarrollo al alumnado.

Los otros veinte están situados en Perú (Lima y Alto Amazonas), Panamá y El Salvador. Nuestra intención es poder desarrollar también proyectos en África (concretamente en Tanzania, en colaboración con las Hermanas Pasionistas - con algún proyecto de ellas está colaborando ya el Ayuntamiento de Urretxu).

**“Gure egitasmoetako bat, lan munduan sartzeko tailerra: Peruko San Martin herrialdean emakume gazteentzako metal mekanikoa, Urretxuko Udalak diruz lagundua.”**

### **¿Y os centráis en algunos colectivos o diversificáis los proyectos?**

Los proyectos que se llevan a cabo, abarcan diferentes ámbitos, pero siempre desde la atención a los más desfavorecidos socialmente. Por ello se está primando la atención a la mujer, buscando su empoderamiento social y familiar y participando en iniciativas contra el maltrato doméstico y la violencia de género (proyectos con madres adolescentes en Yurimaguas, Mujer y emprendimiento de negocios en Lima, prevención de la violencia de género en El Salvador, etc....). Junto a esto, la infancia y la salud, son otros de los puntos fundamentales de nuestras acciones.

### **¿Podrías concretar un poco más**

### **en qué consisten esos proyectos?**

Por poner algún ejemplo, podríamos citar:

- Mujer, familia, acceso a recursos para el emprendimiento de negocios.
- Fomento de microempresas juveniles con potencial de desarrollo en los distritos de San Juan de Lurigancho y Ate Vitarte.
- Madres adolescentes e inserción laboral.
- Demarcación de tierras.
- Juntos por las niñas y mujeres maltratadas de Alto Amazonas.
- Atención solidaria para niños y niñas con labio leporino y paladar hendido en la Amazonía del Perú.
- Promoción de la salud con participación ciudadana para pueblos de la Amazonía del Perú.

Y así hasta 20 proyectos uno de los cuales está subvencionado por el ayuntamiento de Urretxu, concretamente "Taller para Inserción Laboral: Metal Mecánica con Mujeres Jóvenes en la Región de San Martín" Perú.

Este es un proyecto que se va a realizar en la Región de Alto Amazonas, concretamente en Tarapoto. Es un proyecto que atenderá las necesidades de inserción laboral de diversos colectivos desfavorecidos, entre ellos mujeres jóvenes y algunos muchachos que viven en condiciones de extrema pobreza.

Se busca que a través de una capacitación adecuada y de una formación, tanto ocupacional como personal, complementada con prácticas laborales, estas personas salgan preparadas para acceder a las ocupaciones más demandadas

### **Hay algunos que son curiosos, ¿Qué significa eso de demarcación de tierras?**

Pues imaginémosnos, aquí en Euskalerría, que un día lleva un pastor a sus animales a pastar y se encuentra el sitio donde han vivido y pastado los animales de su familia durante siglos vallado por una multinacional "X" a la que el propio gobierno del país le ha vendido las tierras porque como no hay censo,

pues oficialmente no hay nadie y esas tierras le pertenecen. El proyecto de demarcación de tierras al fin y al cabo lo que pretende es hacer el censo para demostrar que en la selva si hay una población importante a la que el gobierno tiene que atender y defender. Y nos encontramos, por el contrario, que por ponerse a hablar de estas situaciones desde una radio hay personas amenazadas de muerte como Mario Bartolini. Desde ADECO también apoyamos a Pío Zarrabe que está muy metido en este tema.

### **¿Colaboráis con organismos o fundaciones locales, in situ?**

Lógicamente, antes he mencionado que uno de los objetivos de la ONG es trabajar aquí en Euskadi para gente de Euskadi que trabaja allí, un ejemplo: En Panamá (junto con la contraparte ASASTRAN) se están des-



arrollando proyectos de salud en una región indígena (Ngobe). El proyecto de medicina tradicional que combinaba la medicina natural con la medicina más moderna, comenzó hace ya más de seis años y se ha llevado a cabo con éxito. Actualmente lo ha recogido el Gobierno de Panamá y va



a ser parte de la sanidad global. Con este proyecto se ha pasado de unos elevadísimos niveles de mortandad infantil (24/1000) a niveles europeos (4/1000). Actualmente se está complementando este proyecto con la venta de plantas medicinales y la creación de un hospital para personas con tuberculosis.

**¿Ves necesaria la existencia de ONGs que trabajen a miles de Km habiendo aquí cerca gente que lo pasa realmente mal?**

Ojalá no hubiese necesidad de que existieran, pero este mundo se

mira al ombligo constantemente, sin darse cuenta que en esta sociedad nuestra tan moderna todavía hay personas que no tienen nada, y si esas personas están a miles de km., pues hay que ir a ayudarles. De hecho, aparte de los pasionistas que trabajan allí, se han enviado durante estos 18 años, jóvenes cooperantes durante 3 meses al año, a través del programa del Gobierno Vasco. Este pasado

“ **Han distantziak ez dira kilometrotan neurtzen, baizik eta zibilizaziotik herrixkaraino iristeko behar dituzun orduak, askotan ibai haundi baten zehar.** ”

año estuvieron cuatro jóvenes mujeres donostiarras.

**Y, ¿cual es exactamente tu trabajo en la ONG?**

Ahora mismo estoy llevando a cabo la elaboración de la página web y modero el foro y el blog. También colaboro activamente con la sensibilización, de forma que así contamos en ADECO con gente que ha estado allí, que conocemos de cerca la realidad de la zona y que podemos transmitir lo que hemos vivido.

**Ah, entonces ¿tú has viajado alguna vez a alguna región donde se esté desarrollando algún proyecto?**

Sí, este año he estado 3 meses en Yurimaguas. Es toda una experiencia y una realidad completamente distinta a la habitual. Por ejemplo en Balsapuerto andas sin móvil, sin móvil, sin ordenador, sin coches y sin pasos de cebra. Allí las distancias no se miden por Km., sino por las horas que tardas en llegar de la civilización hasta el poblado, muchas veces por un río inmenso, en una txalupa..., donde la máxima intimidad de sus habitantes se consigue con una mosquitera, en su tambo o casa de madera, donde hay niñas-madres con 13 o 14 años, donde faltan vacunas, donde se vive al día. En ciudades como Lima, hay cientos de niños pidiendo por las calles. En fin, muchas situaciones que en cierta forma tenemos que paliar, acompañándoles, sin imposiciones.

**¿Nos podrías dar, para finalizar, la dirección del blog y de la página web por si hay alguien que quiera más información?**

Claro que sí, el blog es <http://asociacion-adeco.blogspot.com/> y la página web se colgará próximamente en internet, os avisaremos.

Mila esker, Jon.>

**M.<sup>a</sup> Carmen Viedma**



IPARRAGIRRE SARIA

MARTXOAN BERTSOA

# SORMENA BULTZATZEKO AHALEGINEAN



## **Iparragirre Saria: Bertsopaperen atala berri abian**

Zumarraga eta Urretxuko mugetatik kanpo erreferentzia bilakatu den literatur sariketa entzutetsuari beste dimentsio bat eman dio, zalantzarik gabe, bertso jarrien atala gehitzeak. Hamarkada eta erdi inguru iraun duen basamortuko zeharkaldia bizi izan du herriotan helduei zuzenduriko bertso jarrien lehiaketak. Lehenago antolatu ohi zen, baina arrazoi ezberdinak tarteko deialdia egiteari utzi egin zitzaion, besterik gabe. Ureztatzen ez den lorea bere horretan hiltzen den moduan eman zuen herriotako bert-

sopaper lehiaketak ere azken arnasa, zarata handirik egin gabe. Bertso eskolaren une hartako egoera orain bezain osasuntsua ez izateak ere izango zuen, noski, lehiaketaren adio hartan eraginik.

Denborak, baina, orduko adio hura geroarte bat baino izan ez zela erakutsi digu aurten. Atsedena hartu, indarrak bildu eta berriz ere martxan jarri da bertsopaper lehiaketa. Nola, gainera. Iparragirre sariak eskaintzen duen hauspoaren babesean. Bertsopaperen atalak Iparragirre sariketari osotasuna ematen dion neurri berean ematen baitio Iparragirre sariak bertsopaperen atalari babesa, berau Iparragirre sariketaren baitan antolatuz gero.

Batak bestearen beharra duela esatea asko esatea da agian, baina batak besteari mesede egiten diola ez dago zalantzan jartzetik. Zumarraga-Urretxuko bertso eskolako kideek ilusioz eutsi zioten Udalek jarritako erronkari, ekimenak herriotan zegoen hutsunea betetzen baitu. Azken urteotan arnasberritu, egonkortu eta hazi egin da bertako bertso eskola, nabarmen hazi, eta neurriak ematen duen inertzia probestuz errazagoa da hainbat ekimen aurrera ateratzea, edozein motatako ekimenak izanik ere. Haur, gaztetxo, gazte zein heldu, jendetza mugitzen da egun Zumarraga-Urretxun, modu batera edo bestera, bertsoaren errit-mora. Bestela esanda, asko dira bert-solaritzaren berotasunean eroso eta



***Pasa berri den otsailaren 13an banatu ziren aurtengo Iparragirre literatur sariak. Iraganari bistadizoa botaz gero, Zumarraga eta Urretxuko Udalek Iparragirre literatur sariketa martxan jarri zutenetik urte mordoxka igaro dela ikustea berehalakoa da. Olerki zein narrazio alorrean, ehundaka dira urtez urte jasotzen diren lanak, epaimahaiaren galbahe zorrotza igaro dutenak gutxi batzuk baino izan ez arren. Aurten, berrikuntza aipagarri bat izan du Iparragirre sariketak, bertso jarrien edo bertso-paperen atala gehitu baitzaie olerkiari eta narratibari. Herriotako eta inguruetako sortzaileek aukera berri bat izan dute, beraz, Iparragirre sariaren edizio berri honetan.***



gustura aurkitzen direnak, eta nekez pentsatuko zen horrelakorik orain dela ez horrenbeste urte.

Iparragirre sariketako beste ataletan ez bezala, maila bi bereiztu dira bertso jarrien atalean: hamasei urtetik beherako gaztetxoena, eta adin horretatik gorako sortzaileek idatzitako sortak lehiatu diren maila, helduena. Izan ere, garrantzitsua da, haur izateari utzi baina artean heldu izatera ailegatu ez diren nerabeengan, sormena lantzea bultzatzen dituen barreneko harra bizirik mantentzea. Eta horretarako, ezinbestekoa da lehiaketaren adar bat euren adinera egokitzea. Helduen lehiaketak errespetua sortzen baitu nerabeengan eta gutxi dira lehiaketara

lanik bidaltzera ausartuko direnak, euren maila propio bereiztu ezean. Hobe hala, gainera, urrats bakoitza une zehatzean, ez lehenago, ez beranduago, emanez gero, euren sormen gaitasuna erabat gorpuzturik helduko baita maila nagusira.

### **Martxoan Bertsoa: Irudimenari zabalduriko leioa**

Sormena lantzea bultzatze aldera, ekimenez lepo dator aurtengo martxoa ere. Zazpigarren edizioa beteko du aurten Martxoan Bertsoa zikloak, eta herrian zein herritik kanpo erreferentzia bilakatu da, 2003tik hona bertso eskolak lana txukun eta gano-

raz egin duen seinale. Zikloaren ardatza eta funtsa bertsoa den arren, bestelako disziplinak ere jorratzen dira bere baitan, betiere irudimena piztea eta umorea bultzatzea izanik helburu.

Herritik kanpoko artistak bertara ekarriz eraikitzen den ekimen nolabait deitzearren pasiboren bat edo beste ere baduen arren zikloaren egitarauak (bertso afaria edo haurrei zuzenduriko bertso antzerkia, kasu), aipatu egitaraua osatzen duten ekimen gehienek herriotako bertsozaleen partaidetza aktiboa eskatzen dute ezinbestean. Horixe izan baitzen, hasera hartan, bertso eskolak zikloa martxan jarri izanaren arrazoi nagusia: herritarren partehartzea

bultzatuko zuten ekintzez osaturiko zikloa nahi zen, beste ezeren gainerik. Edonon baitago egun bertsoak entzuteko aukera, bertso saioak udaberriko zizen moduan ugalduta hantzen. Bere burua bertso entzule soil baino zerbait gehiagozatzat duen bertsozaleak, ordea, nekez aurki lezake beste inon egun batez bederen benetako bertsolari sentitu eta jende aurrean kantuan aritzeko honen moduko aukerarik. Ezta etxean patxadaz eginiko bertso jarriak musikaz lagundurik kantatzeko aukerarik ere. Zail izango du, halaber, kamera aurrean jarri eta, zinema izarren moduan, laburmetrai baterako paper bat antzetzeko aukerarik topatzea inon.

Bai, antzetzatu. Aurtengo berritasunetako bat, zikloaren aurkezpen gisa baliagarri izango den laburmetraia grabatzea izan baita. Sormena bultzatzeko beste bide bat, hainbat artean. Ikustekoa izan omen da grabatzeko unean partaidea bakoitzak (antzetze izatetik urrun dagoen jendea, gehiengo) jarritako gogoia. Egindako ahaleginaren emaitza zikloaren haseran egongo da ikusgai. Barrerik ez da faltako laburmetraien aurkezpenean.

Gatozen, baina, aurtengo egitarauaren inguruko azalpenen bat edo beste ematera. Herrian eta herrikanpo sona handien duen ekimena, herriko taldekako bertsolari txapelketa, haziz doa etenik gabe. Bost kanporaketa jokatu dira aurtun eta orain bi urte Legazpiko bertso eskolakoek ere parte hartzeko pausoa eman ostean, Ezkio-ltsaso eta Gabirikoak izango dira aurtun ohol-



tzara igotzera animatuko direnak. Ikusmin itzela sortuko du urtero bezala, aurtun ziuurtenik areagotu egingo den ikusmina, bailarako txapelketa izaera moduko hori lortu izanaren eraginez.

Txapelketaz gain, aipagarria da ikastaroen atalari bertso eskolak ematen dion garrantzia eta atal hori indartzeko egin ohi duen ahalegina. Aurtun, Xabier Paia bertsolariak emango du bertso eskolako klase berezia eta horrez gain, Harkaitz Cano idazlearen bi eguneko literatur tailerra ere izango da, Martxoan Bertsoan bertsolaritza ez ezik sormena lantzeko bestelako bideak ere jorratzen diren erakusgarri. Herriko ikastetxeetako gaztetxoei zuzenduriko bertso paper lehiaketa (hogeita bigarren edizioa), hurrei zuzenduriko bertso antzerkia, bertso musikatua eta beste hainbat sorpresa ere izango ditu zikloak.>

**Gorka Azkarate**  
Argazkiak: **Bertso Eskola**

## OFERTA CULTURAL

El pasado 13 de febrero se entregaron los premios literarios Iparragirre, certamen al que este año se le ha añadido una categoría más: además de las habituales categorías de narrativa y poesía tanto en euskara como en castellano, este año se ha contado con la categoría de bertso paperak, recuperando así el concurso de que se organizaba hace más de una década. La bertso eskola ha acogido la iniciativa con ilusión y el objetivo es seguir fomentándola en adelante. Por otro lado, el ciclo Martxoan Bertsoa cumple este año su séptima edición y el programa se presenta cargado de actividades y novedades, de las que se podrá disfrutar intensamente durante las próximas semanas.



## OTSAILA, TRADIZIO HILABETEA



**S**an Blas eta Santa Ageda santuak omentzeko ohi-turak bizirik jarraitzen du herrian. Kondairak dio, San Blasek arrain- hezur bat eztarrian trabatu zitzaion haur bat salbatu zuela eta horregatik egiten da urtero jakien bedeinkapena. Santa Ageda bezperako koplek ere martiria izan zuten gogoan otsailaren 4an. Gainzuri eta Ikastolako haurrak eta Goiargi zein Pagoetako abesbatzetako kideak aritu ziren iluntzean kalez-kale kantuan. Hilaren 19an berriz, ostegun gize-na ospatu zuten haur eta jubilatuek urtero bezala txorizo ogitartekoa jaten. Eta asteburuan, mozorroa soinean umore eta kolorez jantzi zituzten kaleak.

**Maite Quevedo**

## ARTISTAS DE GRAN PRESTIGIO EN JUAN DE LIZARAZU

**L**a exposición del reconocido pintor Nori Ushijima da continuidad al ambicioso proyecto que ha preparado el departamento de cultura. La sala de exposiciones Juan de Lizarazu expondrá la obra de artistas de gran prestigio en los siguientes meses: J. Ramon Elorza, Iñaki Olazabal y Barbara Stammel. El broche lo pondrán las exposiciones de las artistas locales Maite Ascasibar e Itziar Albisua.




FECHA	ARTISTA	ESPECIALIDAD
16-01-09/01-02-09	<b>Iñaki San Martin</b>	Argazkia
11-02-09 / 27-02-09	<b>Keixeta</b>	Pintura
13-03-09 / 29-03-09	<b>Nori Ushijima</b>	Pintura
03-04-09 / 26-04-09	<b>J. Ramon Elorza</b>	Pintura
08-05-09 / 24-05-09	<b>Maite Ascasibar</b>	Pintura
12-06-09 / 28-06-09	<b>Barbara Stammel</b>	Pintura
03-07-09 / 19-07-09	<b>Itziar Albisua</b>	Pintura
02-10-09 / 18-10-09	<b>Iñaki Olazabal</b>	Eskultura

## GIZARTE ZERBITZUETAKO OHARRA

**A**urrerantzean, Urretxuko Audaleko gizarte zerbitzuekin harremanetan jartzeko txanda eskatu beharko da alde aurretik. Sarri sortzen diren jende ilarak ekidin eta zerbitzua hobetzeko asmoz hartutako neuria da. Txanda, telefonoz (943 03 80 83) zein posta elektronikoz (gizadmi.ur@urretxu.net) eska daiteke.

## IPARRAGIRRE PLAZA ETA LIBURUTEGIA, WIFI EREMUAK




**G**eroz eta ohikoagoa da, kalean bertan interneten dabilen jendea ikuste. Urretxun Labeaga kalean badago wifi gunea taberna batzuen inguruan eta laster Iparragirre plaza bera ere wifi eremua izango da, izan ere kultur etxean eta liburutegian jarriko da instalazioa. Beraz, ordenagailu eraman-garria izanez gero, intereterako konexioa doan izango du herritarrek bi leku hauetan.

## RUSLAN PONOMARIOV EN URRETXU

**2**5 de enero de 2009. Había llegado el día "D", la primera exhibición a nivel mundial de Ponomariov, el Campeón del Mundo más joven de la historia (25 años), que jugaría 8 simultáneas a la ciega, y sin ayuda de tablero. Era evidente que si había aceptado un reto casi imposible era porque él estaba convencido de que lo ganaría. "Sólo con firme voluntad se consigue el triunfo", dice un viejo proverbio.

En el ajedrez, como en la vida misma, peor que tener un mal plan es no tenerlo. Nada había dejado al azar: el Ayuntamiento de Urretxu, aparte de una aportación económica, me había conseguido setas de calefacción, vallas para acotar el espacio de los jugadores, focos, sonido... El ayuntamiento de Zumarraga me había cedido unas mesas apropiadas para el acto. Así que se me cayó el mundo cuando el ciclón impidió la instalación de la gigantesca carpa. Vi pligrar el trabajo de un mes. Un mes pegado al ordenador y al teléfono.

Ketxus Amenabar y mi mujer me dieron fuerzas para improvisar, y que aquel vendabal no me hiciera jaque mate. Temí que Ponomariov aplazaría el reto. Pero, no. Se jugó en el interior de Eire. Todo lo contrario a una jaula de cristal acondicionada. Gente de todas las edades llenaron el bar. Se tocó la



txalaparta y un aurreku en su honor. Estábamos muy apretados. Anduvo perdido las cuatro primeras rondas. En la comida su novia me confesó que temió que Ruslan vomitase, huyera o sufriera una crisis de ansiedad. Luego, se concentró inimaginablemente. Nada le molestaba. Ni el ruido de un bar a pleno funcionamiento, ni los niños, ni los flashes, ni el ruido de la registradora. En todo momento supo el lugar de las 256 piezas. Los movimientos que hacían sus adversarios eran transmitidos en inglés. Su lengua materna es el ruso. Los traducí y volvía a dar las contestaciones en un inglés perfecto. Claro está, sin ningún error. Su novia era la encargada de mover las fichas. Hubo un lance en que ella se confundió. El Gran Maestro Internacional la corrigió: "esa casilla está sin ocupar". Y así era.

Todos sus contrincantes fueron abandonando, excepto Pedro Castro, que acabó en mate. La más dura según Ruslan fue la de Iñaki Osés. El último en abandonar, Hurko Mendiguren. Dos horas y media transcurrieron. Se ganó más de cinco minutos de cerrada ovación. Nos dejamos las manos aplaudiéndole.

Empecé a respirar. Nos estrechamos las manos con fuerza. Vislumbé en su mirada el alivio. Desconozco si el descifró lo que yo sentí: todo fue un éxito, todo salió bien, pero ¡qué cerca está el éxito del fracaso!

Ruslan volverá, y mientras tanto intentaremos asimilar lo que vimos en Eire Taberna.

Más información en [www.eiretaberna.com](http://www.eiretaberna.com)

**Txema Iriberrí**



## TURISMO BULEGOA MOMENTUZ ITXITA

**B**aillarako zerbitzua bateratzeko asmoz, momentuz itxita dago turismo bulegoa. Uztailean ireki zituen ateak eta jende ugari izan da bertan informazio eske. Hain zuzen ere, uztailean 43 bisitari pasatu ziren bulegotik eta abuztuan 153. Espainia, Frantzia, Suitza, Polonia zein Kanadako bisitariak izan genituen herrian udan, bertako txokorik preziatuenak ikusten.





## LORE AZOKA

**B**ereziki gogorra izan da aurten go negua. Hortaz, ziur jendeak irrikaz hartuko duela udaberriaren etorrera. Ongi etorria emateko, lore azoka ospatuko da aurten ere Urretxun apirilaren 19an. Laugarren lore azoka da dagoeneko eta ohi bezala, Gernikako Arbola plazan ospatuko da. Loreez gain, haurrak landaren mundura erakartzeko tailerrak ere egongo dira.

## SEMANA DE LA MUJER

**L**a semana de la mujer que se celebrará del 2 al 8 de marzo viene cargada de actividades: conferencias, visitas culturales, exposiciones, teatro de Irri-makila con la colaboración del coro Goizalde, entrega del premio XERA a Araceli Garcia Calvo y como colofón el concierto de música de cámara que la clarinetista urretxuarra SARA ZUFIAURRE y el cuarteto de cuerda HEMIOLA ofrecerán el sábado 14 de marzo con obras de HAYDN y MOZART. Será en el salón Labeaga de Urretxu, a las 19:00 y con entrada gratuita. No se lo pierdan.



## EUSKAL JAIK 50 URTE

**B**errogeita hamar urte, mende Berdia, betetzera doa Urretxuko Euskal Jaia. 1959an herritar talde batek hasitako bidea aldapatsua izan da zenbaitetan, debekuak eta errepresioa medio etena ere ezagutu baituzen urretxuarron jai handiak, baina osasuntsu eta indarrez iritsi da 2009 honetara.

"Urretxuarron" jaia esan dugu, baina ez da guztiz zuzena; inguruko herritarren eta euskaldun guztion festa ere bada Urretxuko Euskal Jaia. Frankismoaren gau ilunean, euskalduntasun oro diktaduraren hankapean zegoenean, urretxuarrak jakin izan genuen askatasun egarrria -pixka bat, bederen- asetzeko iturria aurkitzen, jaiaren bidez topatu ere. Eta aurkitu. Izan ere, hasiera hasieratik, Euskal Jaia ez da festa soila izan, baizik eta euskaldunon izaera eta identitatea erakusteko eta aldarrikatzeko tresna, garaian garaiko ezaugarriekin. Zenbat herritarrek ondo gogoratuko dute Lapurdiko dantza-talde batek ikurriña ekarri eta erakutsi zueneko, gutxi batzuen haserrea

eta askoren harridura eta poz ezkutaetzina piztuz, frankismo bete betean. Baserritarren eta arrantzaleen egoera, Iparragirre, Gemikako Arbola, zentral nuklearrak, kutsadura, euskararen egoera, presoak, Urolako trena... gai zerrenda luze-gia da hemen sartzeko, baina Urretxuko karrozetan erakusteko ez, urteetan barrena. Eta idiek eraman-dako karrozen artean, dantzariak, txistulariak, gaitajoleak, trikitalariak... izan ditugu ikusgai eta en-

tzungai berrogeita hamar urteotan.

Dena den, karrozen desfilea bakarririk ez da Euskal Jaia. Eskulangintza erakusketak ere urte mordo bete du Gernikako Arbola plazan, eta azken urteotan Kandela Piztea ere gehitu zaio. Euskal Jaia bizirik dago, bere burua berritzeko eta eguneratzeko gai da, eta urteurren honetan horixe erakutsiko du, alegia, nola uztartzen dituen tradizioa eta egungo errealitatea.

Iraileko egun handia ailegatu bitartean, Urretxuko Udalak denon ikusgai jarri nahi ditu urte guzti hauetako jaia islatzen duten irudiak, argazkiak eta bideoak. Dagoeneko azken hamarkadetan grabatutako bideoak eta ateratako argazkiak guztion eskura jarrita daude [www.youtube.com](http://www.youtube.com). (bilatzailean "Urretxuko Euskal Jaia" sartu behar da).

Urtean zehar izango duzue horren berri, baina ziur egon zaitezte mereziko duela.

**Gotzon Aranburu**



# KALEKO IRITZIAK

**Maite Quevedo, M.<sup>a</sup> Carmen Viedma**



**EDURNE FERNANDEZ DE ARANGUIZ**

